

Gesto por la Paz

PRENTSAURREA

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEAK ANTOLATURIKO

BIKTIMENGANAKO ELKARTASUNEZKO XI EKITALDIA.

Oroimenaren urratsak

Berriro ere, Gesto por la Pazek Biktimenganako Elkartasunezko ekitaldia egingo du, Gabonetatik hurbil, aurten 11garren ekitaldia izango delarik. Gure betidaniko asmoa indarkeriak kaltetutako pertsonenganako ELKARTASUNA piztea izan da. Aitorpena eta Elkartasuna berebiziko urratsak dira euskal gizartea gizago egiteko. Aitorpena eta Elkartasuna berebiziko urratsak dira, batez ere, OROIMENAREKIN loturik doazenean.

Datorren igandean, abenduak 19, ekitaldi hori burutuko dugu, baina zertxobait desberdina, bestelakoa izango da. Oraingo honetan, Gestoko kideok eta lotu nahi duen orok, terrorismoak zauritutako tokietan, pertsona baten erailketa-tokian, oroigarri bat utziko dugu. Bilbon 49 tokitan utzi zituen terrorismoak (BVEk, GALEk baina batez ere ETAk) bere emaitza onartezinak: 63 pertsona hilik. Toki horiek oroimenez jantzi nahi ditugu; hartara, espaloian hildako pertsonen izenak, egunak, eta oroimenerako esaldi bat: "Izan gogoan, izan gure artean". Aldi berean, biktimen oroimena irudikatzen duen lorea ere erabiliko dugu, *betibizi* lorea.

Oroimenaren urrats hauek lagun ditugula, Fermín, Antonio, M^a Luisa, Ovidio, Joseba, Eduardo, Fernando, María... erail zituzten tokietan gelditu egin nahi dugu; argi izpi bat kokatu nahi dugu lekuotan, hain zuzen ere, fanatismoak eta intolerantziak akabatutako pertsona horiek gogorazteko, eta berriro ere horrelakorik gerta ez dadin.

Bilbon zehar, hainbat ibilbide egingo ditugu; hirurogeita hiru pertsona horien izen-abizenak eta bizitzak –bidegabekeria hutsak akabatuta- gogoan izango ditugu. Euren heriotza ere gure oroimenaren zati izatea nahi dugu, etorkizun aske eta zuzenagoaren zati bihurtzeko asmoz

Eraildako pertsona gehienak terrorismoaren helburu izan ziren. Bidegabekeriari handiena pertsona bat hiltzea da, baina batzuen uste ziztrinez, hil behar ziren. Denak omen ziren "errudunak". Aitzakia onartezinak, justifika ezina zuritu nahian. Beste batzuk okerreko "ekintza" baten ondorioz erail zituzten. Erratu egin ziren, beste barik. Baina berdin die, lepoan hartu eta segi aurrera hil eta suntsituz. Maria Luisa Sanchez, adibidez, lana amaituta etxera zihoan. Senarra eta bi semeak langabezian zituen. Baina ez zen etxera ailegatu. Mesedetako Kaian zegoen Renault saltokian ETAk jarritako lehergailuak guztiz suntsitu zion gorputza. Guk bidegabekeria izugarri hori salatu nahi dugu beste behin. Guk 63 bidegabekeria horiek gogoratu nahi ditugu, geure zati baitira.

Bakearen aldeko Koordinakundeak gonbitea egin nahi die bilbotar guztiei *oroimenaren urrats* hauetan parte hartzeko. Hiltzaileen eskaintzari aurre egiteko, guk itxaropenaren eta biziaren alde jokatzeko dugu. Ekitaldia goizeko 11ak aldera hasiko da hiriaren hainbat tokitan, 13:00etan Casilda Iturrizaren Parkera abiatzeko. Berton, biktima bakoitzaren

Gesto por la Paz

oroimena egingo da eta komunikatua irakurriko dugu. Guztiok zaudete gonbidatuta, behinola lotsazko tokiak izan zirenak, orain oroimenezkoak izan daitezten.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

14 de diciembre de 2010

